

Hezitopia dinagu zain



**NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA**



PAULA ESTÉVEZ

Tomas Moreoren *Utopia* liburuko utopiarrek leitzea maite omen zuten. Hizkien bueltako hezkuntza onaren ondorioz, haurtzaroan hasi eta helduaroan ere aritzen ei ziren, inork manatu beharrik gabe, leitzen eta ikasten eta gehiago leitzen. Pentsa, aisialdia horretara emanak bizi zuten denbora, plazer hutsez ilustratzen. Utopia uhar-teko barrideen apeta horri gaur *lifelong learning* erraten zaio eta ametsei utopia, minuskulaz.

“Ezein toki” eta, bide batez, “toki ona” ere bazen irlakoaz geroztik, utopia parrasta idatzi da eta ez denak, zorionez, hain ohiko zaigun utopiaren ulerkera egingaitz baten araberan. Izan ere, garaian garaiko *statu quo*-a eta orotariko dominazio formak iraultzeko emandako hezkuntza proiektu kritikiko franko ere, egingarri eta inarrostaila aritu direnak, utopia huts zaizkigu egun.

Afera da, ikasturte berri distirant baten abiatze honetan, komeni dela jakitea hezkuntza publiko eta doakoa utopia bat baizik ez zela Manifestu Komunistak jaso zuelarik. Eta Clara Zetkin-entzat hezkuntza askapena izan zitekeela eta eskola, aldiz, iraultza, eta hortaz, sutsuki aritu zela haurtzaindegi laikoan defentsan. Eta Aleksandra Kollontai-k, zenbait urte lehenago haurren hazkuntza kolek-

tiboaren utopia ematera ausartua zena, emakume langileen umeen zaintzarako sare sozial profesionalizatua antolatzea izan zuela bere lehen ardura politikoe-tako bat. Eta Nadezhda Krupskaja-k jakintzak trebetasun eta ezagutzak ekin-tza bilakatuko zituen eskola berri baten utopia paratu zuela abian.

Demagun, guretako utopia dela justizia sozial, berdintasun eta askatasun maila handiagoetan bizitzeko proposamen harmoniatu bat. Eta, demagun, ezarritako gauzen egoera erreproduzitzeko nahia duen eskolaz kontrara, pertsonen, kulturen eta herrien emantzipazioa bilatzen duen horri erraten diogula guk hezkuntza, naturarekin batean ibiltzeko gai denari, jostagarria eta sormenzalea denari, zaintzaren pedagogia egiten duenari, klase kontzientzian zangoak pausatzeko ahalkerik ez duenari, gorputzak norma patriarkal burgesaren arabera bezatu nahi ez dituenari. Finean, garai bakoitzak harekin dakarren zapalkuntza zakutoari aitzin egiten dion horri erraten diogula guk hezkuntza utopia; *hezitopia*.

Italiako Barbiana herriko ikasleek zioten, maistra anonimo bati idatzitako gutun haietan, kontsolamendu errazena dela historia patu gisara leitzea eta, aldiz, klabe politikoetan leitzea dela egiaz-

ki aztoragarria. Ba pedagogiarekin berdin. Eta badakigu pedagogia aztoragarri eta politikoki kritikoa egitea badela hezkuntza neutraltasunaren falaziaz gandi aritzea, badela ere patioko lurtean klaroner bide berriak marraztea eta horietan barrena paseietan aritzeko ausardia biltzea. Gu baino lasterrago gogor saiatu denik izan da. Gaur ez lirudike garai onenak direnik hezkuntza utopientzat, alta, beharrezkoak ditugu, inoiz ez bezala ez bada, bai, seguruena, beti bezainbertze. Behar ditugu gaur eskolarako amets berriak, bizipoz, asanblada, kultur sorkuntza, iritzi kritikiko, irakurketa, antolaketa, begirada berri, elkarrizketa, eskubide eta elkar zaintza forman materializatu-ko direnak.

1952an Ruth Krauss-ek Rowayton eskolako Haur Hezkuntzako haurrei euren mundu-ikuskerara aditzera emateko aukera luzatu zien orotariko galdemu-duk pausatuz, gero, erantzunak liburu ausart eta garairako utopiko batera ekarri zituen. Munduaz eta erlojuez erran zizkietenak honatx, gaurkoaren ondorio gisara: “Mundua da gu bere gainean zutitu ahal izateko”; “Erloju bat da tik-tak nola egiten duen aditzeko”.

Ba horixe, erakustun jende hori, etortzearen den iragana dugula zain. Tik-tak-tak... ●